Usurbilgo Udala

2026/10/07

2026KO URRIAREN 7AN EGINDAKO
EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Jose Maria Lizaso Azconobieta eta Petra Romero Pozo.

Usurbilen, 2026ko urriaren 7an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2027KO ORDENANTZA FISKALAK HASIERAZ ONARTZEA (2026EKOF0002).

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Gobernu taldearen ordezkari gisa, Agurtzane Solaberrieta alkateak 2027 urterako prestatu duten Ordenantza Fiskalen proposamena azaldu du urriaren 1ean egindako ez-ohiko Ogasun Batzordean. Irailaren 16ko batzordean azaldu zituen bezala, 2027rako urterako proposatzen dituzten zerga, tasa eta prezio publikoen aldaketa nagusiak honakoak dira:

1. Batetik, irizpide orokor gisa proposatzen du **zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren arabera igotzea, hau da %3,7 igotzea**.

2. Irizpide orokorra aurrekoa izan arren, zenbait **salbuespen** egingo dira:
    - Kirol zerbitzuetan, Buruntzaldeko udalen artean hala adostu zelako, kirol zerbitzuetako prezioak eta abonuak %5,5 igoko dira.
    - Uraren arazketa kontzeptu berri bat sartu da, Añarberen aldetik azken urteetan egindako inbertsioak direla eta, kontzeptu honekiko gastuak handitu baitira eta orain arte Udalak ez ditu kobratu. Ondorioz, ur-kontsumoaren araberako %75ko arazketa zerbitzu kontzeptu berria sartu da. Urtero igotzeko asmoa dago estolderiaren mailara(ur-kontsumoaren %75) iritsi arte datozen urteetan.
    - Hondakinen kasuan %10eko igoera emango da, 7/2022 Hondakinen legearen baitan jasotako zerbitzuaren defizit zero printzipioaren bidean.
    - Udajolaseko tasari dagokionez kosteak asko igo dira, eta proposamena da orain arte bezala zerbitzuaren estaldura maila %50eko izatea. Alabaina, hori horrela izatera iristeko igoera progresiboa egitea aurreikusten da datozen urteetan eta, honela, 2027rako prezioa 150 euroan gelditzea.
    - Haurreskolari dagokionez ez da igoerarik emango.
    - Egonaldi Turistikoen zerga berria onartuko da.

2027rako proposatzen diren ordenantza fiskalen xehetasunak emanik, Antolaketa batzordeak, 2026ko urriaren 1eko bilkuran, gehiengoaren aldeko bozkarekin (alde: Iratxe Begiristain Otegi, Agurtzane Solaberrieta Mesa eta Josune Urkola Larrarte; abstentzioa: Petri Romero Pozo) onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehena: 2027ko Ordenantza Fiskalak hasieraz onartzea.

Bigarrena: 30 egunez jendaurrean jartzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:33an. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.